



Gatikako udala
Bizkaia

**2013ko martxoaren 27ko OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: 20.00
BUKAERA ORDUA: 20.06**

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3.- Maite Lekanda Bilbao
- 4.- Naiara Beldarrain Fullaondo.
- 5.- Unai Arrizabalaga
- 6.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 7.- Unai Arruza Elorduy.

Ez dira etorri baina horretarako arrazoiak emon dituzte: Vanesa Alvarez Zorrilla eta Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea

Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

Aztergaiak:

1.- Arteko akteen onarpena.

Otsaileko akta onartzen da. (GTI bi baiezko botoak, PNV: 4 baiezko botoak; Bildu: ezezko boto bat)

Naiarak dio azkenengo puntua entzun behar dutela.

2.- Abenduko dekretuak.

2013/27	19/02/2013	Hirigintza arloko aholkularitza teknikoa emateko zerbitzu kontratuaren espedientearen onarpena.
2013/28	19/02/2013	Elkarkidetzaren gaiaren gainean Bizkaiko Foru Aldundiari asistentzia juridikoa eskatzeko.
2013/29	20/02/2013	A.A.E. jaunari, otsailaren 23an Urdoko txokoa afari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko.
2013/30	21/02/2013	F. E. S. jaunari eta J. B. A. andreari Libero auzoan lur banaketa egiteko baimena emoteko.



Gatikako udala

2013/31	Bizkaia	25/02/2013	Hurrengoko ordainketak onartzen dira
2013/32		26/02/2013	Julian Bilbao Ereñozaga baja dagon artean, udaletxeak %100 osatzea onartu da .
2013/33		26/02/2013	Arkaitz Arostegi Mardaras baja dagon artean, udaletxeak %100 osatzea onartu da.
2013/34		27/02/2013	M.T.E. jaunari, Martxoaren 1ean Urondoko txokoa afari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko.
2013/35		27/02/2013	Kanpo aholkularitza informatiko zerbitzuaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen sailkapena.
2013/36		27/02/2013	Gaztetxoko zerbitzuaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen sailkapena.
2013/37		05/03/2013	Z.A.E. jaunari, Martxoaren 8an Urondoko txokoa afari bat egiteko erabiltzeko baimena emoteko.
2013/38		07/03/2013	M. B. U. andreari, Sertutxa auzoa, 12an "baserriaren kortan" obrak egiteko lizentzia emoteko.
2013/39		07/03/2013	S. G. E., S. A. enpresari, Ugarte auzoko Industrialdean, "tailerrean obrak" egiteko lizentzia emoteko.

Ez dute ezer esateko.

3.- Eskabide eta galderak.

Naiarak dio geratu zirela aurrekontuak informazio guztiarekin aste santu baino lehenago bidaltzea.

Alkateak erantzuten dio prestatzen egon direla eta pres daudenean bidali egingo dituztela.

Unai Arruzak galdetzen du eza komun enpresaren obraren gaineko kontratuan deriboko lanak sartzen ziren ala ez. Alkateak erantzuten dio baietz. Unai Arruzak galdetzen dio ea zergaitik hemengo langileak ari diren lan horiek egiten. Alkateak erantzuten dio obrak aurreratzeko eta kostua murrizteko.

Unai dio obra egiteko ea kontutan hartu diren Gatican dauden enpresak. Alkateak erantzuten dio Daniren eskuz laga dela asuntu hori eta bere konfiantzazko enpresa bat aukeratu duela.

Unai esaten dio txarto ikusten duela horrela egitea. Hemengo enpresak Gatican ordaintzen dituztelako beraien zergak eta kontutan hartu beharko zirela horrelako lanak egiteko.

20.06an amaitu egin da osoko bilkura hau.

ALKATEA

IDAZKARIA